

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Argentinako elkarte nafarren topaketan parte hartu du Rosario

Rosario hiria Santa Feko probintzian aurkitzen da, eta bertako gobernadorearekin elkarriketatu da; intendenteak bisitari ospetsu izendatu du Lehendakaria

Igandea, 2018.eko abenduak 9

Buenos Aires hiriburuko jardueraren ondoren, Barkos Lehendakaria Argentinara egiten ari den bidaiaren bigarren etapan, Rosario hiriko agintariekin eta Argentinako elkarte nafarrekin bildu da. Zehazki, Rosarioko intendentearekin elkartu da, Mónica Feinekin, eta horrek bisitari ospetsu izendatu du; halaber, Santa Fe eskualdeko



Barkos Lehendakaria Santa Feko gobernadorea den Miguel Lipschitz-ekin.

(hiria probintzia horretan aurkitzen da) Miguel Lipschitz gobernadorearekin elkartu da, eta Espainiako kontsula, Alfonso Palazon, ere agurtu du.

Abenduaren 7an, ostiralean, Uxue Barkos Lehendakariak lan-bilera egin zuen Argentinako zentro ezberdinetako lehendakariekin, Rosarioko Nafarroako Zentroko batzar-aretoan. Foru Gobernuaren aldetik, bertan izan ziren, baita ere, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria, Ana Olló, eta Proiektzio Institutuzionalaren Zerbitzuko zuzendaria, Félix Carmona. Orobat, haiekin bildu ziren Raúl Amatriain, Argentinako Errepublikako Nafarroako Zentroen Federazioko eta Rosarioko Nafarroako Zentroko lehendakaria, eta Buenos Airesko, Mendozako eta Bolivarko zentroetako lehendakariak.

Topaketari esker, Barkos Lehendakariak zentro ezberdinen egoera eta jarduerak ez ezik, etorkizunean garatuko dituzten proiektuak ere ezagutu ahal izan zituen. Bileran zehar, Uxue Barkos bertaratutakoei zuzendu zitzaion Argentinara emigratu zuten nafarrak gogora ekartzeko: "jende ausarta, ekintzaileak, zailtasun guztien gainetik bidea irekitzen jakin zutenak, baina jatorria inoiz ere ahaztu ez zutenak eta haien diruarekin, erakunde publikoen laguntzarik gabe, Nafarroako Zentroak sortu zituztela" adierazi zuen.

Horrez gain, emigrazio hura jada ez dela gertatzen gehitu zuen, baina "zerbait oso baliotsuak jarraitzen duela;

alegia, gure Komunitatearen presentzia Nafarroako Zentroen bitartez eta etengabeko jardura sozial, kultural eta kirol-arlokoaren bidez, erabat irekia Argentinako herritar guztiengana". Lehendakariak bere hitzaldia amaitzeko, ondorengo mezua helarazi zien: "Nafarroak, instituzioek eta bertako herritarrek bere izate osoaren ezinbesteko zati bezala sentitzen zaituzte. Horregatik, Topaketa honetan parte hartzera etorri naiz, hemen Nafarroaren izen onaren alde egiten duzuen guztiaz harro sentitzen garela esateko, Nafarroatik hona etorritako zuen arbasoen, jende langile, leial, konprometitu eta eskuzabal haren herentziari eutsiaz eta gogoratuaz; argi dago duintasunez jarraipena ematen ari zaretela".



Nafarroako ordezkaritza Rosarioko intendentearekin, Mónica Frein-ekin.

Rosarioko Nafarroako Zentroa Amerikan dauden Nafarroako Zentroen artean handiena da. Hiru solairu zabal ditu, dantzak, txistua, e.a. ikasteko aretoak, liburutegia, areto soziala, haurrentzako zona, e.a. Egoitza sozialaz gain, Nafarroako Zentroak hiriaren inguruan, Funes izeneko mugartean, bazkideentzako lursail bat du, eta, bertan, arauzko pilotalekua, igerilekua, areto soziala eta bestelako instalazio osagarriak aurkitzen dira.

Bitxi bibliografikoen erakusketa

Bilera ondoren, bazkaria egin zuten Nafarroako Zentroaren egoitza berean. Halaber, 'Nafarroako Erresumako bitxi bibliografikoak' erakusketa inauguratu zuten, Foru Gobernuak finantzatua eta Mintzoa Argitaletxeko Aritz Otazuk komisario-lanak eginda; azken horrek edukia azaltzeaz gain, erakusketaren alderdi garrantzitsuenak aipatu zituen.

Egunari amaiera emateko, afaria egin zuten Rosarioko Nafarroako Zentroaren egoitza sozialean. Abenduaren 8an, larunbatean, berriz, jai-ekitaldi eta ekitaldi folkloriko ezberdinak egin zituzten: hasteko, kalejira egin zuten dantzari eta musikariek Nafarroako Zentroaren eta Maiatzaren 25eko Plazaren artean, eta, ondoren, Argentinako zentro guztietako dantzariak eta txistulariak emanaldia eskaini zuten.

Intendentearen eta gobernadorearen harrera

Nafarroako elkarteekin elkartu aurretik, Barkos Lehendakaria Rosarioko intendentea den Monica Freinek hartu zuen Udal Jauregiko bulegoan. Rosariok 948.000 biztanle ditu, eta biztanleriaren aldetik hirugarren hiria da Argentinan, Buenos Airesen eta Cordobaren ondoren. Herrialdeko erdi-ekialdean kokatzen da, Santa Fe probintzian, eta zentro kultural, ekonomiko eta hezkuntza, finantza eta entretenimendu arloko zentro garrantzitsua osatzen du. Intendenteak bisitari ospetsuaren izendapena eman zion Nafarroako Lehendakariari, Udalaren beste bulego batean.

Rosarioko Udaleko topaketaren ondoren, Barkos Lehendakaria eta Nafarroako gainerako ordezkaritza Intendentziaren plaza berean dagoen Espainiako Kotsulatu Nagusira joan ziren, eta Alfonso Palazon kotsula agurtu zuten bertan. Ondoren, Miguel Lipschitz-ekin elkarrizketatu zen; hau da, Santa Feko Probintziako gobernadorearekin. Rosario hiria probintzia horretakoa da, eta horko intendentea izan zen segidako bi agintaldietan, 2003 eta 2011 artean. Lipschitz-ek Américas Saria jaso zuen 2008an, generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzeagatik.

Galería de fotos



Lehendakariaren hitzaldiaren une bat Rosarioko Nafarroako zentroan.



Argentinako Nafarroako zentroetako lehendakariak Barkos Lehendakariarekin eta Olló kontseilariarekin egindako bilera Rosarioko zentroan.



Nafarroako ordezkariak Nafarroako Erresumako bitxi bibliografikoei buruzko erakusketa bisitatu zuen.